

# AGINDU TEKNIKO PARTIKULARREN ORRIA

## 1.- ORRI HONEN XEDEA

Orri honetan ezarri diren agindu tekniko partikularrek arautu egin beharko dute -dagokion kontratua arautuko duten klausula administratibo eta ekonomikoekin batera- "Egur horniduraren gauzapena Baztango onuradun bakoitzarentzat".

## 2.- ETXEETAKO EGUR SORTEN KOKAPENA (Planoa erantsi da)

Egur sortak Berroeta eta Legate alderdietan daude, pagadiz osaturiko behemendietako masen gainean. Baztango Batzar Nagusiaren jabetzakoak dira.

Berroetan, aprobetxamendua malda handiko lurretan dago eta zura skidder edo oihan-traktorearekin atera behar da.

Legaten aprobetxamendua oro har malda leuneko lurretan dago. Horrek aprobetxamendua autokargatzailearekin egiteko aukera ematen du; horrela bota behar ez diren zuhaitzei kalte txikiagoa egiten zaie.

Legaten gainera, bideetako lurzorua lur naturalez osatua dago eta ia beti hezea dago; horrenbertzez, lohia sortzen da makineriarekin ibiltzean. Horregatik, mendiko kamioia oso egun gutxitan sar daiteke zura ateratzeko bideetan; horren ondorioz hobe da zura autokargatzailearekin ateratzea kargalekuraino.

Etixerako egurra erauzteko ustiaketa honako aprobetxamendu-eskema honi jarraikiz eginen da:

### 1. Berroetan

Zuhaitzak moztu eta skidderekin herrestan kargalekuraino edo kamioian kargatzeko tokiraino eramatea.

### 2. Legaten

Zuhaitzak moztu eta kargalekuraino edo kamioian kargatzeko tokiraino eramatea; malda leuneko tokietan. Zuhaitzak skidderekin herrestan kargalekuraino edo kamioian kargatzeko tokiraino eramatea; autokargatzailearekin egin ez daitekeen tokietan.

## 3.- KONTRATUAK BEREKIN DAKARTZAN ZERBITZUAK

Esleipendunak Baztango Udalaren jabetzapeko masetan hartu beharko du etxerako egurra. **Egur sorten eskatzaileak 50 dira orotara.** Hona zerbitzua zertan datzan: zuhaitzak moztu, zatikatu, oihanetik atera eta garraiatzea, egur sorta bakoitza garraiatu ere, eta Baztango auzokide onuradun bakoitzari etxeraino eramatea. Zuhaitzen mozketa pistak irekitzerakoan egin da.

## 4.- LANGILEAK

Instalazioetan zerbitzua ematen ari diren langileak esleipendunaren kontura joanen dira, eta kontratuak dirauen bitartean, behar adina langile mantendu beharko ditu kalitatezko zerbitzua bermatze aldera. Kontratastak bermatu beharko du bere kargura dauden langileen itxura ona, jantzi egokiak eta tratu zuzena, bai eta beraren kontura zerbitzua ematen duten bertze edozein langilerena ere.

## 5.- MAKINERIA

Esleipendunak zerbitzua ongi emateko behar den makineria guztia ekarri beharko du eta, era berean, azpiegiturak baldintza onetan uzteaz arduratuko da. Kontratua ongi betetzeko behar den makineria motozerrek, skidderrak, autokargatzaileak eta mendiko kamioiak osatuko dute.



## 6.- MOZKETA EPEALDIAK

Zuhaitzen mozketa ilargia gorapenean dagoenean eginen da egurraren kalitatea bermatzeko. Bakarrik seinalatuta dauden zuhaitzak mozten ahalko dira.

## 7.- EGURRA ATERATZEA

Zura menditik ateratzean ez dira ukituko zutik dirauten zuhaitzak. Zura makineria egokiarekin aterako da. Pistatik hurbil markaturik dauden zuhaitzak errefortzutako erabiliko dira marruskadurak saihesteko eta zura atera ondoren moztuko dira. Zuhaitzak beren adarrekin batera atera ahalko dira, egur guztia aprobetxatzeko. Egurra kargalekura eraman, adarrak kendu eta luzetara zatikatuko da, 6 metrotik 6 metrora.

## 8.- KANTITATEAK ETA ENTREGA BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak 12 tona egur emanen dio egurra eskatu duen Baztango auzokide bakoitzari. Udalak eskatzaileen zerrenda emanen dio esleipendunari, izen-abizenekin, helbide eta telefonoarekin. Eskatzaileei gutxienez ere 48 ordu lehenago abisatu beharko zaie.

## 9.- ENTREGA EPEAK

Eskatzaileak 2016ko maiatzaren 31 baino lehen eman beharko ditu egur sorta guztiak.

## 10.- ZURA ATERATZEKO BIDEAK, ETA KARGALEKUAK

Zura atera eta biltegitratzeko bideak eta kargalekuak mendian daudenak dira. Nolanahi ere, esleipendunak konpondu beharko ditu pista, bide eta kargalekuetan sortzen diren kalteak.

## 11.- ZERBITZUA ETEN EGITEA

Baztango Udaleko langileek aprobetxamendua eten ahal izanen dute behin-behinekoz, era desegokian egiten ari bada, erran nahi baita, orri honetan ezarritako baldintza batzuk betetzen ez badira, oihanaren iraupena arriskuan jartzen bada, edo oihan-lurzoruari eta oihan-bideei kalte larriak eragiten ari bazaizkie. Halaber, lanak eten ahalko dituzte, baldintza meteorologikoak aurkakoak badira; hau da, erauntsia, elurteak, etab.

## 12.- ERANTZUKIZUNAK

1. Aprobetxamendua esleitzen denetik azken azterketa egiaztatu arte, esleipenduna izanen da zuzeneko erantzulea eta, nolanahi ere, esleitutako eremuan –eta eraikiko diren bide eta kargalekuetan– egindako arau-hausteen ordezko erantzule zibila ere bai. Aprobetxamendua eta etxerako egurraren hornidura egiteko erabiltzen diren bideak oro lanak hastean zeuden antzeko baldintzetan utzi beharko dira.

2. Arau-hausteak egiten badira indarreko oihan eta ingurumen arloko legeriarekin bat, kasuan kasuko administrazio-prozedura abiatuko da. Halakoetan, esleipendunak edo egintzen egileak –aprobetxamenduarekin zerikusirik batere ez duen pertsona bat bada, esleipendunarekin kontratu bidezko harremanik batera ez duena– kasuan kasuko zehapena eta kalte-ordaina ordaindu beharko ditu aipatu legeriarekin bat.

Aipatu legeria urratzeak eragindako kalteak **beharrezkoak ez diren kaltetzat** joko dira. Mendietan inolako aprobetxamendurik egiten bada orri honetan ezarritako agindu teknikoei jarraitu gabe, oihan-legeriaren arau-haustetzat joko da.



3. Kalteak eragiten badira ezarritako arauak hautsi gabe, kalte **saihestezintzat** joko dira, eta esleipendunak kasuan kasuko kalte-ordaina ordaindu beharko dio mendiaren jabea den Toki Entitateari, behin kalteak balioetsitakoan. Balioespen hori egite aldera, aprobetxamendua esleitu zeneko prezioak erabiliko dira.

4. Baztango Udaleko mendizainek zehaztuko dute zer kalte mota eragin den eta, bere kasuan, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko mendizainek.

5. Inola ere ez da zuhaitzik erantsiko, azpiegitura berriak eraikitzeaz bertzelako arrazoiengatik edo aprobetxamendua gauzatu bitartean eragindako kalteez bertzelako arrazoiengatik.

### **13.- LANEN BUKAERA ETA AZKEN EGIAZTAPENA**

Lanak bukatzean, sobran dagoen egur guztia kenduko da, hitzartutako prezioan kendu ere, esleipendunaren kontura. Sobran dagoen egurra pisatu eta menditik eramane da. Esleipendunak Baztango Udalari ordaindu beharko dio sobran dagoen egurra, hornidura-zerbitzua egiteko eskaini duen prezioan gutxienez ere. Prezioa 20 € izanen da tonà bakoitzeko.

#### **Azken egiaztapena**

1. Lanak bukatutakoan, esleipendunak Nafarroako Gobernuko Oihanak Kudeatzeko Atalari eta mendiaren titularrari jakinaraziko die lanak bukatu izana, aprobetxamendua egin den eremuaren azken egiaztapena egin dadin.

2. Mendiaren titularrak esleipendunari dei eginen dio Azken Egiaztapeneko Ekitaldira joan dadin, eta bertan ere izanen dira Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuko landa langileak. Entrega egiteko eguna eta ordua aurrez jakinarazi beharko zaie aipatu langileei. Aipatu Ekitaldian, Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentuko landa langileak akta eginen du, hiru aletan; ale bat esleipendunari emanen zaio, bertze bat mendiaren titularrari, eta hirugarrena, Nafarroako Gobernuko Oihanak Kudeatzeko Atalera helaraziko da.

3. Idatzizko deia jaso ondoren, esleipenduna edo haren ordezkaria ez bada egiaztapeneko ekitaldira joaten justifikatutako arrazoirik gabe, egiaztapenarekin ados dagoela ulertuko da.

### **14.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Hala mendiaren jabe den Entitate Titularrak -lanen sustatzailea baita-, nola lanen enpresa esleipendunak lan arriskuen prebentzio arloko indarreko legeria guztia bete beharko dute:


- 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta ondoko aldaketak.
- 171/2004 Errege Dekretua, Enpresa Jarduerak Koordinatzeari buruzkoa
- 1627/1997 Errege Dekretua, eraikuntza obretako segurtasun eta osasunari buruzko gutxienezko xedapenei buruzkoa.

. Aprobetxamenduaren gauzapena ukitzen duen prebentzio arloko bertze legeria oro.



KOKAPEN PLANOAK

LEGATE



BERROETA

